

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

14. ALDIZKARIA - 2024ko urtarrilaren 18a (tarifaren aldaketa)

10. ORDENANTZA - ORDENANTZA FISKALA, ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIAN TASAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria.

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza.

2. artikulua. Zergapeko egintza da zerbitzu tekniko edo administratiboak egitea, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko.

Tasen sorrarazpena.

3. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko tasa sortuko da eskaera aurkezten den unean, eta lizentzia ez da tramitatuko lehenago tasa hori ordaintzen ez bada.

Subjektu pasiboak.

4. artikulua. Ordenantza honetan aipatzen diren lizentziak emateko tasak ordaindu beharko dituzte arriskutsu gerta daitezkeen animalia baten jabe edo edukitzaile diren guztiek, betiere Udalaren osasunari buruzko ordenantzaren Barañaingo udalerrian animaliak edukitzeari buruz egiten den sailkapenaren arabera.

Tarifak.

5. artikulua. Ordenantza honen eranskinean heldu dira kasu bakoitzean aplikatu beharreko tarifak.

Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.

6. artikulua. Arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko tasak, ordenantza honetan aipatzen direnak, Udalaren diru-bilketa bulegoan ordaindu beharko dira, Herriko Etxean baitago, edo udaltzaingoan edo banku bidez ordaintzeko aukeran ematen diren bertzelako bideak erabiliz.

2024KO TARIFEN ERANSKINA

TARIFAK 2024 (eurotan)

I. epigrafea–Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak ematea

Tarifa, lizentzia edo haren kopia bakoitzeko

47,00